

## KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

### GIPUZKOAN

138  
positibo berri

4.230  
positibo guztira\*

1.647  
hildako EAEn

21  
UCLn EAEn

### NAFARROAN

93  
positibo berri

8.606  
positibo guztira

532  
hildako

6  
UCLn Nafarroan

\*Hernanin 99 Astigarragan 31


URUMEA BAILARAKO EGUNKARIA



## Portu auzoko jairik ez da izango aurten

HERNANI  
PORTUKO FESTAK

2



## Kasu positiboak rastreatzeko app-a sortu da

URUMEA  
KORONABIRUSA

6



Oskar Bereziartua:  
«Ikusirik gauzak okerrera egin dutela ez antolatzea erabaki genuen»

ASTIGARRAGA  
ERGOBIKO FESTAK

5

## «Bakean dagoena, bakean utzi»

Festak ez dira izango aurten, baina Ergobin kultur eguna antolatu dute. Hiru ekitaldi egingo dira egun osoan zehar: goizean ipuin kontalaria, antzezlanaren arratsaldean eta egunari amaiera borobila emateko, su festak zerua argituko dute Ergobin.

4



## Barrenetxea IV.ak txapelaren defentsa hasiko du gaur

HERNANI  
ERREMONTEA

7



## Argigramen tailerra Nagore Legarretarekin, Chillida-Lekun

HERNANI  
IZPIGRAMEN TAILERRA

6



## Tximistak Arano jo zuen

Azkenaldian fenomeno meteorologikoek gertaera ugari utzi dituzte. Duela aste batzuk tximistak argi gabe utzi zituen zenbait baserri, Aranoko Suro auzoan.

ARANO  
GERTAERA

6

IRUBIDE JATETXEA  
Zure jatetxea, Epelen

Epele auzoa, 7  
943 552 480 - 667 208 702

NOAQA  
BIDAIAK

Hipodromo Etorbidea, 10  
LASARTE-ORUA, Gipuzkoa

Ordutegia:  
09:30-13:30  
Aurretiko hitzordua beharrezkoa da

943 37 36 13  
info@noaqa.eus



# «Aurten gehiago genuen galtzeko, irabazteko baino eta horregatik ez da ezer ere ez antolatu»

«Umeentzako ekitaldiak antolatzea pentsatu genuen, baina Ordizian uztailean gertatutako brotea eta gero bertan behera utzi genuen» dio Julen Lekuona Jai Batzordeko kideak.

## HERNANI PORTU AUZOKO FESTAK

Portu auzoko jairik ez da aurten izango. Abuztuko azken aste-buruan ziren egitekoak, urtero bezala, baina Koronabirusak sortutako pandemiaren eraginez bertan behera uztea erabaki zuen Jai Batzordeak. Bertako partaide da Julen Lekuona due-la 30 urtetik eta pena haundia hartu dute.

## Noiz erabaki zenuten festak bertan behera uztea?

Egia esa, batzuk ez geunden festak antolatzeke prest, beno festak kakotx artean. Bagenekien ez zirela beste urteetakoak bezala izango. Asmoa genuen eguneko gauzak egitea. Txozna ezin genuen jarri, berbena ere ez... baina umeentzako gauzak eta ekintzak pentsatuak genituen egun batez antolatzea. Hala ere, Ordizian uztailean gertatu zen brotearen ondorioz, gure pentsakera guztiz aldatu genuen.

Aurten leku gehienetan festak bertan behera ari ziren gertatzen eta guk ere dena suspenditzea erabaki genuen uztailean erdialdean. Beraz, aurten ez da San Joan Txiki festarik egongo, Portu Auzoan, abuztuko azken aste-buruan. Planteatu zen puzgarriak ekartzea, baina beraiek ere ez dira lanean ari. Izugarri kaltetu die pandemiak. Antolatzea oso zaila da beraientzat, ume kopuru mugatua da, txanda bakoitzeko desinfektatu behar dute... behin Ordiziko berria atera zenean ideia guztiz aldatu genuen.

**Gutxienez udaran zehar ekitaldi kulturalak antolatu dira auzoan familientzako** Horretan Alfredo Moraza aritzen

da, kultur ekitaldiak antolatzen, eta esan zigun zerbait egingo zuela eta egin dira bizpahiru ekitaldi. Arrakasta haundiarekin gainera.

## Pena horrenbeste urte eta gero aurten ezin antolatu izana

30 urte bai urtero antolatu ditugula. 15-16 urte genituenetik koadrila hasi zen Portuko jaiak antolatzen. Festak egongo balira asto karrerak egongo zirela ere badaukagu esatea. Nola edo hala antolatzea pentsatzen genuen. Gure aiton-amonek gerra garaian antolatu zituzten eta guk birus honegatik ez dugu egingo? galdetzen genuen. Ba begira, azkenean gerrak geratu ez zuena Koronabirusak geratu du. Bi edo hiru asto karrerekin temati egon gara, buru gogor. Urte batzutan festen programatik kanpora antolatu ziren, baina beti egon dira. Baina azkenean ezingo da eta auzotar askori pena haundia ematen dio, askori gustatzen zaizkigu.

## 30 urte eta gero beraz festarik gabe

Pentsa, orduan diru kontuak ezin genituen eraman adingabeak ginelako eta koadrilako bat hiru urte zaharragoa da eta berak eramaten zituen. Guk 15 urte genituen.

## Auzotarrentzako bakarrik ez, Hernanirentzako ere erreferentzia dira Portuko jaiak

San Joanak, San Joanak dira eta Portukoak gure San Joan txikiak. Zerbaitengatik dira horrela. Udara bukaeran izaten dira eta jendea oporretatik itzuli da. Erraza da herritik Portura jaistea kotxea hartu gabe. Ho-



Julen Lekuona zaletua da antolatzen dituzten asto karreretara.

**«Auzoan oraindik jende heldu asko bizi da, zorionez, eta zaindu egin behar ditugu»**

rrenbeste urtetan etenik gabe antolatu izanak erreferentzia bihurtu du festa hau. Auzo mailan pena haundia dago, baina esan diguten bezala gaur egun gehiago genuen galtzeko, irabazteko baino.

## Zuek erresponzabilitatearen aldeko apustua egin duzue

Horrela da. Zorionez auzoan oraindik heldu asko bizi da eta zaindu egin behar ditugu.

**«Gure amon-aitonek asto karrerak gerra garaian ere antolatu zituzten eta aurten ez dira egongo»**

Konfinamenduko egunik politena niretzako izan zen kalera irteten utzi ziguten lehenengo egunean jende heldua kalera irteten ikusteak poz asko eman zigun eta hori mantendu behar dugu. Urte bete zain egon behar bada osasuna mantentzeko egongo gara. Penaz, baina pasako da eta berriz ere ospatuko ditugu eta antolatuko ditugu Portu auzoko festak.

**«San Joan Txikiak herri guztian dira erreferentzia eta datorren urtean antolatuko ditugu»**

## Eta antolaketan jarraitzeko gogotsu?

Bai, bai. Pasa den urtean lortu genuen jende berria sartzea antolakuntzan edo Jai Batzordean. Lehen beti bost egoten ziren eta erabaki genuen lanak banatu behar genituela. Arazorik ez dugu edukiko jarraitzeko. Denen artean eraman-garriagoa da, errazagoa eta gogo haundiekin hartuko dugu 2021eko festen antolaketa. **K**

## Kronika

Larramendi 11, Hernani  
☎ 943 33 08 99  
688 660 714

**Lege gordailua:**  
SS-1469/2018  
**ISSN:** 2659-5036

**Eposta:**  
kronika@kronika.eus,  
astigarraga@kronika.eus,  
urumea@kronika.eus eta  
publi@kronika.eus.  
**www.kronika.eus**

**Lan-taldea:**  
A. Arbelaitz, O. Egaña, I.  
Goñi, L. Goñi, A. Isasa,  
B. Los Arcos, J. Osa,  
M. Ramirez de Alda, I.  
Santa Kruz eta J. Zubitur.

### Argitaratzailea:

**DOBERA**  
EUSKARA  
ELKARTEA

Larramendi 11, Hernani  
☎ 943 33 27 99  
**Eposta:** dobera@dobera.eus  
**www.dobera.eus**

KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

### Laguntzaileak:



Hernaniko Udala



Astigarragako Udala



Euzko Udala



GOIZUETAKO UDALA



ARANOKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetzak)  
diruz lagundua.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

**DOBERA BAZKIDEAK**  
**KRONIKALARIAK**

### TOKIKOM







Itxas-Buru sagardotegian egin zuten aurten urteroko sagardotegi zita.

## San Joan txikirik ez baina urtea ongi ari dira apobetxatzen auzotarrak

Urte hasieran, Gabonen bueltan, hainbat ekitaldi antolatu ziren eta gero ere ibilaldiak, irteerak eta sagardotegia ere antolatu dituzte bizilagunek.

**HERNANI PORTU AUZOA**

San Joan txiki festarik gabe, baina denbora ez dute galtzen Portu auzoan. 2020 urte berezi honetan Auzo Elkarteak ez dira geldirik egon eta ekitaldi desberdinak antolatu dituzte urte hasieratik.

Gabonetan egitarau zabala antolatzen dute eta urtea erroskilen tailerrarekin eta Santa Barbarara egindako ibilaldi ba-

tekin hasi zuten. Umeak eta familiak izan ziren protagonista hasierako ekitaldi horietan, baina otsailean helduen txanda etorri zen. Urteroko ohiturari jarraituz, txotx egiteko jarri zuten hitzordua eta Itxas-Buru sagardotegian izan ziren 50 bat auzotar, giro ederrean.

Martxoa eluraren hilabetea izaten da eta aurten Izabara egin zen irteera, pandemia madarikatua etorri aurretik,

astebete lehenago. Gero denak etxean sartuta konfinamendua iritsi zen eta balakoiko ekitaldien ordua. Pintxopotea, bingoa, margolanak, kaldereroak... denetarik egin zuten eta Hernaniko Musika Bandak ere uda iritsi zenean egin ziren bisita.

Uztailean, festarik ez zela egingo jakinda umeentzako kultur ekitaldiak antolatu dira. Honela, *Ehiztaria ehizatua* antzerkiak eman zion bukaera uztailari eta abuztuan Sarini zirkuaren txanda izan zen, eta grabitatearen lege guztiak apurtu zituen ekilibrio ikusgarriekin. **K**



Erroskila tailerrak arrakasta izaten du urtero txikienekin.



Ibilaldietako bat Santa Barbarara egin dute.



Izabara ere joan dira elurretan ibiltzera Portu Auzoko familiak.



Udaran Sarini ekilibristaren ikuskizuna egon berri da.

### EGURALDIA GAUR



Lainoak ugariak izango dira iparraldean eta han-hemenka euri pixka bat egin dezake, batez ere goizean eta azken orduetan.  
**Min.15° / Max.23°**

### BIHAR



Kantauri isurialdean euri bikia egin dezake, batez ere egunaren lehen zatian. Arratsaldean bustitzeko probabilitatea txikiagoa izango da.  
**Min.16° / Max.21°**

(euskalmet)

### TELEFONO ZENBAKIAK

**TAXIAK** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALZAINGOA** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA** 943 464622 **AUTOBUSAK** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 **ANBULATORIOA** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

### FARMAZIAK

**Egunez: Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Gauetz: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738**  
**Goizueta:** Nagusia 64 948 514353

### IRAGARKI MERKEAK

**Soziosanitario euskalduna pertsonak zaintzeko prest, ziurtagiri eta kotxearekin.**  
**Deitu: 678 992 110**

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**



# Su festak argituko du Ergobiko zerua auzoko kultur egunean

Auzoko festarik ez da egongo, baina hiru kultur ekitaldi antolatu dira; Apaxirekin ipuin kontaketa, antzerkia eta amaitzeko su festa.

## ASTIGARRAGA ERGOBIA

Ergobiko jaiak asteburu hone-tan ziren ospatzekoak, baina aurten ez da festarik izango. Horren ordez, Ergobiko kultur eguna 2020 antolatu da gaur hiru ekitaldirekin.

Goizeko 11:00etan Apaxi ipuin kontalariak bere pasadizoak kontatuko dizkie bertarantzen diren gaztetxoei.

Arratsaldean, 19:00etan, *Bakean dagona bakean utzi!!* antzez-lana eskainiko da eta amaitzeko, 22:30etan piroteknika Valecearen eskutik su festak emango dio amaiera egun berezi honi.

Ikusi daitekeen bezala adin guztientzako hiru ekitaldi dira eta amaiera ezin entzutetsu eta ikusgarria antolatu da.

Oso garrantzitsua izango da,

tokian tokiko segurtasun neurri eta antolatzaileen gomendioak jarraitzea (maskarillak, gel desinfektatzaileak, ziurtasun distantziak...).

Antolatutako hiru ekitaldiek aforo mugatuakin izango dira, Udalak eta Danak Bat Ergobiko Kultur Elkartek elkarlanean antolatutako ekitaldi guztiak.

Festarik ez da izango aurten, baina datorren urtean antolatzeara espero da. Gainera aurreko urteetako festak gogoratzeko eta memoria pixka bat egiteko une aproposa da. Berriz ere etorriko dira momentu onak. **K**



Jexux Mari Iruretagoiena 'Izeta III' harrijasotzen.



Idi probak festetako beste momentu esanguratsua izaten dira.



Puzgarrietan ezin hobeto pasa izan dute gaztetxoeak.



Auzotarren bazkaria momentu kuttuna izaten da.



Sagardo dastaketan jende asko biltzen da.

## XXXVIII. BURUZ BURUKO ERREMONTA TXAPELKETA

KUTXABANK SARI NAGUSIA

Abuztuaren 22a

1. PARTIDA / 16:00-etan

MIRUBIA vs URRUTIA II  
ARRUARTE vs AIZPURU III

2. PARTIDA / 17:00-etan

BARRENETXEA IV vs JUANENEA

3. PARTIDA / 18:00-etan

URRIZA vs ANSA II  
LABAKA vs ZUBIRI

HERNANIARREK  
SARRERA

5€




Pelotadenda.com



kutxabank



sukisa





# «Ergobin jan eta edanean ongi ibiltzen gara, baina aurten ez da horretarako garaia»

Danak Bat Elkarteak antolatzen ditu San Bartolome jaiak, baina aurten arduraz jokatu dutela dio Oskar Bereziartuak.

## ASTIGARRAGA ERGOBIKO FESTAK

Ergobiko San Bartolome festak oso estimatuak dira eta bertara jende asko hurbiltzen da Astigarragatik eta Hernanitik. Abuztuaren amaiera aldera, San Bartolome egunaren bueltan, ospatzen dira beti eta aurten zoritxarrez bertan behera geratu dira.

Auzoko Danak Bat Elkarteak antolatzen ditu, Astigarragako Udalaren laguntzarekin eta orain bi urte Agustin Urreakak esatari lanak utzi eta gero, bere lekukoa hartu zuen lan horietan Oskar Bereziartuak. Festen antolakuntzan ere aritzen da eta aurten jaiak ez egitearen erabaki zaila hartu zuten argitzen du Danak Bat elkarte-kideak «Ergobin jan eta edanean ongi ibiltzen gara, baina aurten ez da horretarako garaia. Arduraz jokatu behar dugu eta horrexegatik bertan-behera utzi ditugu festak».

Pena haundiarekin hartu zuten erabakia, nahiz eta beharrezkoa izan. «Zai egon gara. Pandemia hasi zenean antolaketa lanetan eta laguntza eske hasi ginen. Ez genekien zenbat irauko zuten eta hori dena aurretik prestatu behar izaten da. Esperantza bagenuen festak antolatzeko, baina ikusirik gauzak okerrera egin dutela ez antolatzeko erabaki genuen».

Auzoko festa izanagatik ere egitaraua eta antolatzen diren ekitaldiak ospea eta maila oso altukoak dira. Ez dira nolana-hiko ekitaldiak eta horren islada



Oskar Bereziartua pasa den urteko sagardo dastaketan.

dira besteak beste sona haundiko Sagardo lehiaketa, Idi Demak eta harrijasotzaile txapelketa. Idi pare, harrijasotzaile eta sagardotegi onenak lehiatzen dira bertan.

### «60 urte Sagardo Lehiaketa antolatzen eta aurten ez egotea doble pena ematen dit»

Euskal Herrian ez dago Ergobiko Sagardo Lehiaketak duen tradizioz. «60 urtetan antolatu dugu eta aurten tamalez ez da antolatu. Nire aldetik pena doblea ematen dit; alde batetik duen ohitura luzeagatik eta bestetik Bereziartua sagardotegikoa izanik ba tokatzen zaigunagatik»

Hala ere Oskarrek argi du ezin zela antolatu. «Jende asko biltzen da, kanpotik jendea etortzen da eta protokoloak betetzea

ezinezkoa zen. Oso zaila da dagoen jendetzarekin»

Arrazoi berdinagatik ezin izan dituzte idi probak eta harrijasotzaileak antolatu. «Hiru ekitaldietan lortu dugu maila altua. Harrijasotzaile onenak etortzen dira Ergobira eta baserritar jendeak oso gustoko ditu idi probak. Oso estimatuak dira bi ekitaldi horiek, baina hemen ere protokoloak betetzea oso zaila zen. Aforo kopurua, distantziak... ezin genituen behar bezala bete. Jende pilaketak saihestu behar ditugu eta hori zaila da bi kirol ekitaldi horietan».

Bazkaria ergobitarrentzat berezia izaten da. Auzotar guztiak elkarrekin biltzen dira jan eta edanean. Hori ere ez egitea erabaki zuen Danak Bat Elkarteak. «Ergobin ongi jaten dugu,

edan ere bai. Baina ardura eta alkohola ez dira ongi eramaten. Hasieran txukun egotea erraza da, baina behin edaten hasi eta gero arduratsu izatea zailagoa da. Afariek ere berdin eta musika ekitaldietan ere protokoloa mantentzea ezinezkoa da».

### «Kultur Eguna, batez ere auzotarrentzat»

Hala ere, zerbait egin nahi zutela argi zuten Jai Batzordekoek. «Ergobira jende asko etorri da bizitzera eta zerbait egin nahi genuen. Honela goizean ipuin kontalaria edukiko dugu umeentzat. Arratsaldean *Bakean dagona bakean utzi!!* antzezlan eta amaitzeko su festa antolatu ditugu. Honela auzoan disfrutatzeko aukera dute bizilagun guztiek. Gainera adin guztien-

tzako ekitaldiak dira. Goizean umeentzako, arratsaldean adin guztientzako eta gauean su artifizialak ere denentzako. Egia esan, orain dela lau urte hasi ginen suak antolatzen eta arrakasta haundia izan dute. Jende asko etortzen da. Ordutegia ere zaindu dugu. Ekitaldi batetik bestera orduen aldea dago eta honek ziurtatzen digu protokoloa betetzeko erraztasuna».

Ergobin aurten ez dituzte festak antolatuko, baina datorren urtean berriz ere izatekotan dira, «pandemia honek uzten baldin badu» dio Bereziartuak. «Ea ze garapen duen guzti honek eta datorren urterako gauzak normaltasunera itzultzen diren. Ikusiko dugu, guk jaiak antolatuko ditugu aukerarik badago». **K**

**Leizuri**  
artisan izozkiak

**Gurpil gaineko izozki denda**

Gozatu jaiak  
eta zaindu osasuna!

food truck

**AKELENEA**  
Eretegia - XIX Mendeko Sagardotegia

**Ondo pasa  
Ergobiko festetan!**

Oialume bidea 57  
20115 Astigarraga  
943 333 333

Carrocerías **MENA**  
TXAPIA LANAK  
PINTURA ETA ROTULAZIOA

**Ondo pasa  
Ergobiko festetan!!**

26 Poligona - Oialume bidea 11 - Ergobia Auzoa  
Tel. eta Fax: 943 555 621  
20115 Astigarraga

**ALDAGAIA**  
apartamentuak

**ZAINDU OSASUNA  
ETA  
DISFRUTATU  
EGUNA!**

Portu auzoa, 9 behea / Hernani  
Tel. 639 99 22 30 - 943 33 35 99  
info@aldagalaapartamentuak.eus



## Tximistak zuhaitza gogor jo zuen Aranon, eta argia joan zen

Azken hilabetean gertaera ugari izan dira bailaran, ekaitza eta tximisten ondorioz. Aranon tximistak lurra altza zuen, Suro auzoan.

### ARANO GERTAERA

Azken hilabetean fenomeno meteorologikoen gertaera ugari sorrarazi dituzte bailaran. Joan den egunean zuhaitza erori zen errekarra Malene inguruan eta duela aste batzuk, tximistak gogor jo zuen Aranon. Lurrikara ere sumatu zuten Goizueta inguruan. Richter eskalan 3 graduko lurrikara erregistratu zen, herrigunetik lau bat kilometrorra. Epizentroat Ollingo meatzeen inguruan izan bazuen ere, trumoiaren antzeko soinua bat sumatu zuten Goizuetan, Aranon, Ezkurran, Eratsunen eta Saldiasen.



Bi zuhaitzetan jo zuen tximistak eta lur azpitik arketara pasa zen gero.

### Suro auzoan gertatu zen

Tximistak ezbehar larrik sortu ez bazuen ere, argia joan zen inguruko zenbait baserritan. Eta bizilagunek jakitera eman dutenez, baserriren batean elektrodomestikoren bat erre zen. Bi zuhaitzetan jo zuen tximistak, eta bereziki gorria den goitik beherako marra marraztu zien arbolei, odolaren kolorekoa. Gero, pinuetatik atera eta arketara pasa zen lur azpitik. Horregatik, lurra harrotua geratu zen tximistak jo zuen zuhaitzen

inguruko zonaldean. Gainera, Txara eta Txarako Bordan, eta Xauxar (Sarobezahar) baserrian ere izan zen danbatekoa.

Azken egunetan ere EAE eta Nafarroan abisu horia ezarri zuen Eusko Jaurlaritzak, tenperatura altuengatik. Udako ekaitza hauek eguzkia, airea eta giroa berotzen duten tenperatura altuengatik gertatzen dira. Horregatik, ziurrena da azken aste hauetako gertaerak fenomeno meteorologiko guzti hauek eragin dituztela. **K**

## Kasu positiboak rastreatzeko, martxan da Radar Covid app-a

Euskadin oraindik ez, baina jada ezarri dute Aragoi, Anadoluzia, Extremadura eta Kantabriako autonomia erkidegoetan.

### URUMEA KORONABIRUSA

Ostegunean estreinatu zuten Aragoi, Andaluziak, Extremadurak eta Kantabriak modu anonimoan Koronabirus kasu positiboak rastreatzen dituen aplikazio mugikorra. Gobernuak aplikazioa eskuragarri jarri bazuen ere au-

tonomia-erkidego bakoitza da bere lurraldean aktibatzearen arduraduna. Kanariar Uharteak eta Gaztela eta Leon ere laster batuko dira, aplikazioaren probetan parte hartzeko prozesuak amaitu dituztela jakinarazi ostean.

Aplikazioa oraindik proba fasean badago ere, jakitera eman dutenez app-a instalatuta bada go eta pertsona horrek positibo batekin kontaktua izan badu, Radar COVIDek berehala jakinaraziko dio. Aplikazio hau martxan jarrita, baimena emango dute osasun agintaritzari positiboekin izan ditzakeen kontaktuen berri emateko, aktibatutako protokolei esker.

### Gainontzeko autonomia erkidegoek irailaren 15ean jarriko dute martxan

Ministerioak azaldu duenez, aipatutako 4 erkidego horiek izan dira beraien sistemetan app hau jarri duten lehenengoak, baina gainerakoak pixkanaka sartuko direla esan dute, «datozen asteetan».

Hala ere, aplikazioa Estatuko edozein autonomia erkidegotan deskargatu daiteke. Gainerako erkidegoetan oraindik ez dago aktibo eta beraz, ez du positibo berri ematen. Baina jakinarazi dute azken 7 egunetako kontaktuetatik erregistratzen ari dela, orain arte bezala. **K**

## Izpigramen tailerra gaur, Chillida-Lekun

Nagore Legarretaren 'Argiaren bila' saioa izango da gaur. Familiei zuzendutako jardueraz gozatzeko sarrera aurretik hartu behar da.

### HERNANI IZPIGRAMEN TAILERRA

Nagore Legarreta argazkilari hernaniarrak hainbat jardueraz prestatu ditu abuztu eta iraileko. Gaur Chillida-Lekun izango da, 11:00etatik aurrera. Argiaren bila izeneko argigrama lantegia antolatu du, Eduardo

Chillidaren eskulturen argiarekin duten harremanaz jabetu eta esperimintatzeko.

Entretanimendua ziurtatuta dago haur eta helduei zuzendutako gaurko saioan. Bertan, argazki paper analogikoa, argia, pintzelak eta elementu ezberdinak erabilita bapateko irudiak sortuko dituzte. Saiora joan ahal izateko, aurretik izena eman behar da, [www.museochillidaleku.com](http://www.museochillidaleku.com) helbidean. Eta Legarretaren hurrengo saioa irailaren 12an izango da, San Telmo museoan. Argazki txikiak izenburupean, argazki lantegia garatuko da. **K**

## Itxaso Zaldua hernaniarra lekualdatu dute

### HERNANI PRESOAK

Uztailaren 21ean Itxaso Zaldua preso ohia atxilotu zuen Espainiako poliziak. Auzitegi Nazionalaren aginduz atxilotu zuten hernaniarra, 2001eko Manuel Gimenez Abaden hilketarekin zerikusia duelakoan. Etxerat Elkartek jakitera eman zuenez, Zaldua ostegunean lekualdatu zuten Soto del Realetik Topaseko espetxera (Salamanca), eta etxetik 460km-ra dago orain.

## Hoge plaza jabetzan betetzeko deialdia zabalik da, abuztuaren 31ra arte

### HERNANI ZERBITZU SOZIALAK

Udaleko Zerbitzu Sozialak-eko klinikako laguntzaileen plaza dira eta lehiaketa bidez egingo da hautaketa egoiliarren zaintzarako. Txanda librean eta azterketa eta merezimendu bidezko lehiaketaren bidez beteko dira 20 plaza hauek, eta deialdia hilak 31ra arte dago zabalik. Parte hartzeko eskabidea Hernaniko Zerbitzu Sozialak Erakundearen bulegoetan emango da, Sandiusterrri kaleko 1 zenbakian.

### Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



**ESKERTZA**

**M<sup>a</sup> Concepcion Urdanpileta Otegi**

Orain egun gutxi hil zen

- Goian bego -



M<sup>a</sup> Concepcionen seme-alabek eta gainerako ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zaretzen guztiei eta baita elizkizunetara etorri zineten guztiei ere. **ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK**

Ereñotzu-Hernanin, 2020ko abuztuaren 22an



**FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu? Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.  
**943 33 10 20** [www.funerariaorbegozo.com](http://www.funerariaorbegozo.com)

- \* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
- \* Beilatokiak
- \* Errausketak
- \* Lekualdatzeak
- \* Eskelak, koroak...




HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA



Barrenetxeak gaur hasiko du pasa den urteko txapelaren defentsa.

## Barrenetxea IV.ak gaur hasiko du txapelaren defentsa

Kutxabank Torneoko finalerdietako ligaxkaren lehenengo partidua jokatu dute atzelari hernaniarrak eta Juanenea aurrelariak.

HERNANI ERREMONTA

partidu erraza izango.

Kutxabank Torneoa faserik erabakiorrenetakoan sartuko da gaur finalerdietako ligaxkaren hasierarekin. Galarretako jaialdia 16:00etan hasiko da eta bigarren partiduan buruz burukoaren partidua jokatu dute Endika Barrenetxea eta Aritz Juanenea.

Ligaxka honetan lau erremontistak hartzen dute parte; Barrenetxea IV, Urriza, Endika eta Juanenea. Lehendabiziko sailkatua finalera sailkatuko da zuzenean eta bigarren eta hirugarren sailkatuek finalerdia jokatu beharko dute, bigarren finalista erabakitzeke.

Sailkapena puntuen arabera izango da. Garaipenak lau puntu gehitzen ditu, 27-29 tantoan geratzeak bi, 24-26 tanto eginda puntua lortzen da, 17-23 tanto artean ez da punturik batzen eta 17 baino tanto gutxiago egiten badira puntua kentzen da sailkapenetik.

Barrenetxea atzelari hernaniarra txapeldun irten zen 2019an eta beraz, gaur hasiko du txapela garrantzitsuenaren defentsa. Ez da erraza izango txapela errepikatzea aurkari gogorak dituelako, batez ere Javier Urriza aurrelaria.

Hala ere, bere defentsa ez du hasiko Urrizaren aurka, baizik eta Juanenea saldistarra izango da bere lehendabiziko arerioa. Aurrelari nafarra txapelketa ederra ari da egiten eta ez da

**Juanenea jotzailea, arriskutsua eta sasoi betean** Juanenea bost partidua jokatu eta irabazi ditu aurtengo Kutxabank Torneoa eta gainera partidua denak irabazi ditu erraz. Orain exijentzia maila igo egingo da, baina edozein arazoak emateko gai dela erakutsi du Saldiaskoak. Barrenetxeak kontuz ibili beharko du peloteoan ahulgune gutxi bait ditu. Jotzailea da, tantoa badaki amaitzen eta defentsan asko hobetu du.

Aurreko jokoak saihestu beharko du atzelari hernaniarrak. Sakean ere ongi ibili beharko du Juanenea erretoan oso ongi ari da eta. Bere ahulgune nagusia agian sakea izan daiteke.

**Goikoetxea ere gainditu zuen ostegunean**

Ostegunean lortu zuen partidua honetara sailkapena. Juanenea 20 tanto behar zituen Kutxabank Torneoko finalerdietako ligaxkara pasatzeko eta 20 tanto egiteaz gain, berriro irabazi zuen. Oraingoan 30-24 gailendu zaio Goikoetxea V.ari final-laurdenetako ligaxkako hirugarren partiduan eta 8 puntu lortu ditu bere bi partidak irabazita. Atarikoak gehituz gero, Saldiaskoak bost garaipeneko txapelketa bikaina eta porrota ezagutu gabe dararama.

Juanenearen garaipena ez zen eroso izan eta Goikoetxeak

gauzak zaildu zizkion. Agian Saldiaskoak ez zen kantxaratu beste partidua batzuetako tentsioarekin eta hori nabaritu egin zen partiduan zehar.

Norgehiagokak ez zuen peloteo askorik izan eta bi aurrelariak azkar bukatu zituzten tantoak. Hor egin zuen tanto gehien Juanenea eta markagailua desorekatu zuen.

Markagailuak 21-20koa erakusten zuen eta jarraian sei eta biko partzialarekin bost tantoren aldea hartu zuen, 27-22. Hor erabaki zen partidua. Juanenea sei tantoko aldea hartu zuen, 11-5, baina Goikoetxea bi tantora jarri zen, 15-13 eta 18-16, eta emozioak gora egin zuen 21-20koan. Aipaturiko 27-22koa eta gero, 30-24 irabazi zuen Juanenea. Goikoetxeak arazoak jarri zizkion Juaneneari eta arerio zaila duela argi geratu zen.

Juanenea merezimendu osoz egin du aurrera kanporaketan eta ligaxkako sailkapenaren buruan Juanenea geratu da zortzi punturekin, Ansa II.ak lau punturekin jarraitu dio eta Goikoetxeak puntu bakarrarekin itxi zuen sailkapena. Lehenengo bakarrik sailkatzen zen hurrengo fasera.

**Zubiri goizuetarra, gaur binakako estelarrean**

Gaurko jaialdian Zubiri atzelari goizuetarra ere protagonista izango da hirugarren partiduan. Binakako estelarra izango da eta Ansarekin batera ariko da Urriza eta Labakaren aurka. Ostegunean eta aurreko astean garaipen bikaina lortu zituen Zubirik eta sasoi betean dagoela erakutsi zuen. **K**

### EROTIKAN PLAX! HARREMANEN INSPEKZIO TEKNIKOA



## Ospakizun xumeen abagunea

Gure existentzia eta harreman afektiboak aktualizatuta mantentzea garrantzitsua da, are gehiago, testuinguru aldakor eta ezjakin honen aurrean.

Gertakari berriak asimilatu, eta egoera ez-ohikoetara egokitzen joateko ospakizun apalak bideratzea, arnasbidea ekar dezake guztia nahaspilatu baino lehen.

Indibidualki, bikotearekin, lagun batzuekin, etxekoekin... orain izan daiteke unea ospakizun xume baina esanguratsuei tartea egiteko. Aurreragorako uzteak, mugari garrantzitsu bat ezartzeko aukera galtzea ekar dezake. Gure bizimoduak aldaketak jasan baditu, bidean galdutako plazerrak, pribilegioak, harremanak, konfiantza edota baliabideak atzean uzten ditugula onartu eta bizimodu berri edo arrotz bati atea irekitzeko unea izan daiteke.

Bizitzak aukera berriak eta oparotasuna ekarri baldin badizkigu, omenaldi apal baten bidez, horixe partekatu, esker-tu eta balioan jar dezakegu.

Bizitzari heltzeko, lorpenei eta galerei leku sinbolikoa egitea beharrezkoa dugu: harremani aitortpenak egitea idatziz edo aurrez-aurre, etxeak eta lantokiak txukuntzea, bakarka edo konpainian negar egitea, guretzat bereziak eta eskuragarri diren lekuak berriro bixitatzea...

**Indibidualki, bikotearekin, lagun batzuekin, etxekoekin... orain izan daiteke unea ospakizun xume baina esanguratsuei tartea egiteko.**

Bizitzako etapa batetik beste batera iragateko balio diguten ate edo ikurrak sortzearekin, bizitzak ekar diezazkiguen bizipen positiboak ere ongi gertatzen ematen diegu. Esker onez bizitzeko aukera irekitzera hel gaitzke, lortu nahi ditugun ametsen bidea zeharkatzeko ausardia batu, lorpen txikiak gozatzeko patxara hartu, edo/eta bidean galdutakoak sortu digun mina oroimen gozoetan transformatu.


PLAX! Hernaniko sexu eta bikote aholkularitza doakoa eta konfidentziala da. Osasun zerbitzuen osagarria. Covid-19a dela eta, zerbitzua telematikoki ematen ari gara momentu honetan. Hitzordua egiteko: **656544606** (deitu edo bidali whatsapp bat), [www.hernani.eus/sexu](http://www.hernani.eus/sexu) eta [facebook.com/plaxhernani](https://www.facebook.com/plaxhernani).

**INDARKERIA MATXISTA jasaten ari bazara, DEITU eta lagunduko dizugu:**

**943 557 854** (8:00-14:00 Hernaniko Zerbitzu Sozialak)

**900 840 111** (24 ordu, ez da dela erregistratua geratzen)

"Merezi dugu indarkeriarik gabe bizitzea" gidak deskargatzeko aukera hainbat hizkuntzatan hemen: <https://www.hernani.eus/indarkeria-matxista/gida>





## Gero eta arigune gehiago Hernanin

Antziola okindegia, Coviran Aitor Peña Hator aholkularitza dira Euskaraldian partehartzen ari diren hiru entitate.

**HERNANI** EUSKARA ARI DU

Elkarte, lantegi, denda, ikastetxe edo instituzio bateko funtzionamenduan dagoeneko erata dagoen taldea edo espazioa da arigune aurtengo Euskaraldian eta hizkuntza-praktikak euskerara aldatzea edo finka-

tzea du helburu.

Hernanin dagoeneko entitate askok eman dute izena eta gehiago animatzea espero da. Horietako hiru dira Antziola okindegia, Coviran Aitor Peña denda eta Hator aholkularitza. Arigunea entitateak sustatzen du ariguneko kideen adostasunarekin, erabaki kolektiboa hartuta.

Ariguneetan belarriprest eta ahobizi izatea askoz errazagoa da, kide guztiek euskaraz ulertzen dutelako edo herritarrei aukera ematen zaielako euskaraz egin ahal izateko. **K**



Lizeagan Coviran Peña denda ere parte-hartzailea da.



Lehenendabiziko aldiz, Antziola okindegia honelako ekimenean parte hartzen.



Hator aholkularitzako langileak arigune izango dira.

**#Izan AKTIBISTA**

**EGIN DEZAGUN HERNANI!**

**LORTU ZURE TXARTELA DOAN  
TABERNA ETA KAFETEGIETAN**

**1.500  
SARI ZUZEN**

**IRAILAREN 3AN**  
HERNANIKO UDALEKO  
YOUTUBE KANALEAN

**MEGA  
ZOZKETAK!**